

## **ELGOIBARKO EGITARUA**

### **1907. urteko uztailaren 26, 27, 28, 29 eta 30ean.**

#### **Uztailaren 26an, ostirala.**

14:00etatik 19:00ak arte: Eskoletako plaza txikian, Aldundiak antolatutako Nekazal eta Ganadu lehiaketa izango den tokian, erreminta, nekazaritza-tresna eta abarren onarpena egingo da.

21:00etan: Foruen plazan “argizko proiektzioak”(diapositiba emanaldia): ganadua, euskal izaerazko eszenak eta gizakiak, eta “euskara eskualdeko” ikuspegi desberdinak erreproduzitu dira.

#### **Uztailaren 27an, larunbata.**

7:00etatik 10:00ak arte: Abere eta Nekazal gaien onarpena.

10:30etik 13:00ak arte eta 14:30etik 19:00ak arte: Aurkeztutako abere, tresna eta produktuen erakusketa, eta lehiaketaren irekiera. Epaimahaiak, arlotan banatuta, abere, tresna eta nekazaritza-produktuen sailkapena egingo du.

17:30ean: Elgoibarko Udalak, tren geltokian, Probintziako Diputatu jaunei eta “Euskal lore-jokoen” batzordeko arduradunei, harrera egingo die. Ondoren, udal musika banda, danboriltero eta ezpata-dantzarien atzetik, udaletxera joango dira. Bertan, udal eskoletako haurrek musika bandak lagundurik ONGI ETORRIA abestuko dute.

19:30ean: San Bartolome parrokiaren, agintari eta batzordeen presentziaz Salbe solemne bat abestuko da. Salbea, ospakizun honetarako idatzi du Ildefonso Lizarriturri herriko semeak, gaur egun Donostiako San Bizente parrokiako organista denak. Salbea Donostiako Orfeoi ospetsuak abestuko du.

21:00etan: Donostiako Orfeoiak, Esnaola maisuaren zuzendaritzapean kontzertu handi bat emango du, euskal izaerazko obrak abestuko dutelarik.

Ordu berean, Foruen plazan **gau-jai handia eta argiztapena** izango da udal bandak eta danborilteroek girotuta.

#### **Uztailaren 28an, igandea.**

6:00etan: Udal bandaren kalejira izango da.

7:00etan: Danborilteroen kalejira izango da.

9:00etatik 19:00etara: Nekazal eta Ganadu lehiaketan aurkeztutako produktu, tresna eta abereen erakusketa izango da.

9:30ean: Aldundia, Udala eta Batzordeak, danboriltero eta musika bandaren ondoren, udaletxetik San Bartolome parrokiara joango dira. Jarraian, antzinako foru usadioaren arabera **Prozesioari** hasiera emango zaio, Foruen plaza, Errosario kalea, Beheko plaza eta San Bartolome kaletik izango delarik.

Prozesioaren ondoren **Meza nagusia** izango da. Eliz barrutiko Apezpiku jaunak zuzenduko du elizkizuna eta Donostiako Orfeoiak “Riga meza” abestuko du. **Sermoia** euskaraz izango da, eta “Jesus Lagundiko” aita Laskibarrek izango du hitza.

12:00etan: Foruen plazan **kontzertu handia** izango da, Donostiako Orfeoiak eta Elgoibarko bandak joko dutelarik

16:00etan: Gipuzkoako Aldundiko eta Elgoibarko udalekoen bisita ofiziala Ganadu eta Nekazal erakusketa gunera. Ondoren, sari-banaketa, eta Foruen plazan **ohizko aurrekua** izango da. Elgoibarko dantzari-txikiek, Jose Lorenzo Pujana jauna dantza-maisu adituaren zuzendaritzapean, zenbait **euskal dantza** dantzatuko dituzte.

19:00etan: Bertsolarien saioa izango da.

20:30ean: Elgoibarko Epelde anaiek atondutako suzko erroberak izango dira, Salbatore-burun egingo den sumendi ikusgarri batez bukatuko delarik. *Literatura- gaua*

21:00etan: Euskal Lore-jokoen batzordeak antolatutako musika eta literatura lehiaketaren sari banaketa egingo da.

Ordu berean, Foruen plazan “argiztapena” izango da musika bandak eta danborilteroek giroturik.

### **Uztailaren 29an, astelehena.**

6:00etan: Udal bandaren kalejira izango da.

7:00etan: Danborilteroen kalejira izango da.

9:00etan: Herri eskoletan euskarazko irakurketa eta idazketa ariketak izango dira, Euskal Lore-jokoen batzordeak antolatuta. 15 eta 30 urte bitarteko irakurle taldeari sari bat eta neskato eta mutikoei beste sari batzuk emango zaizkie.

10:00etan: Foruen plazan danborilteroen lehiaketa izango da.

12:00etan: Udal musika bandak plaza berean kontzertua eskainiko du.

16:00etan: Elgoibarko dantzari txikiek euskal dantza hauek eskainiko dituzte:

1- Paseoa

2- Erreberentzia edo Kontrapasa

3- Makil txiki-dantza

4- Brokal-dantza

5- Ezpata-dantza

6- San Juan-dantza

7- Uztai-dantza

8- Gabon-kanta

9- Makil handi-dantza

10- Zinta-dantza

11- Arku-dantza bere kontrapasarekin.

12- Jorrai-dantza

13- Aurrekua, antzinako erara.

19:00etan: Bertsolarien saioa izango da.

20:30ean: Suzko erroberen txorta ikusgarri bat erreko da.

21:00etan: Herri eskolen aretoan, Donostiako “Euskaldun-fedea”, Pepe Artolak zuzentzen duen talde dramatikoak antolatuta, antzerkia izango da. Honako lan hauek taularatuko dituzte:

1 **Krishpiña eta Krishpiñ**, José Gamboa jaunak idatzitako elkarrizketa.

2 José Artolaren **Pello Kirten** bakarriketa, idazleak berak antzeztuta.

3 **Bishente**, José Artolaren komedia bi ekitalditan.

Ordu berean: Argiztapena, eta musika eta danbolina izango dira Foruen plazan.

### **Uztailaren 30ean, asteartea.**

6:00etan: Udal bandaren kalejira izango da.

7:00etan: Danborilteroen kalejira izango da.

10:00etan: Korrikalarien txapelketa eta antxitxikak ferreterekin. Euskal erako jantziekin aurkezten direnentzat sariak izango dira.

12:00etan : Udal bandaren kontzertua izango da.

15:00etan: Eskola-jai handia ospatuko da. Udal eskoletako haur guztiek hartuko dute parte, euren zutoihalen atzetik, eta ekintzari dagokion himno bat abestuz, Foruen plazara joango dira. Hemen, ohizko hitzaldien ondoren Gernikako arbola abestuko dute. Ospakizuna, ikasleei banatuko zaizkien sari, askari eta oroigarritzko domina banaketarekin, bukatuko da.

18:00etan: Aurrekulari txapelketa izango da, haur-aurrekulariekin bukaera emanez.

19:00etan: Irrintzilarien txapelketa izango da.

21:00etan: "Euskaldun-fedea" taldearen bigarren emanaldi dramatikoa, Herri-eskolen aretoan izango da, honako egitarau honekin:

- 1- Elias Gorostidi jaunaren ekitaldi bateko melodrama: **Amoriyua ta interesa.**
- 2- José Artola jaunaren **Prash** bakarrizketa, idazleak berak antzeztuko duelarik.
- 3- José Gamboa jaunaren komedia ekitaldi batean, **Mariya.**

Ordu berean: Gau-jaia izango da Foruen plazan, argiztapena, musika eta danbolinaz.

**PELLO ARRIETA SORAIZ**

Elgoibarren 2005eko urriaren 20an